

Azaroaren bueltan trebakuntza saioa antolatzen du urtero Amaraunak. Kataluniara txangoan joan eta bertako esperientziak gertutik ezagutuz hasi zuten ikastaroa

Tokian tokiko elikagaien kontsumoaren eta haur eta nerabeen parte hartzearen inguruko gogoetak eta esperientziak bildu eta txosten batean argitaratuko dituzte

ezagutzeko espazio ezin hobeak dira aisialdi taldeak Aiartzaguenaren ustez. Gau eta egun elkarrekin igarotako udalekuetan, gainera, oso momentu intentsuak bizi omen ditu berak. «Onerako eta txarrerako. Hori esan beharra dago. Baina bertan sortzen diren harremanak ez dira azkar apurtzen diren horietakoak», kontatu digu. Harago ere joan da iurretarra: «Fantasiazko mundu batean bezala bizitzea da, Manu pirataren munduan edo euskal mitologiako pertsonaiekin bizitzea bezalakoa. Iaz ume txikienekin egindako udalekuetan egunero euskal mitologiako pertsonaia bat lantzen genuen: sorginak, lamiak, Tartalo... Pertsonaiok ezaugarriak eta bakoitza balio zehatz baten jabe zela esaten genien, bote baten jabe, finean. Berdintasuna, kultur aniztasuna, naturarekiko errespetua... lantzen genituen horrela. Azken egunean haiei eskatu genien istorioa kontatzea eta izugarria izan zen, guztiarekin gogoratzen ziren, jakinduria zurruputzen dute!».

BALIOETAN HEZTEA

Erakundeek ume eta gazteengan ezer gutxi pentsatzen dute. Hala uste du Aiartzaguenak, eta, adin batetik aurrera, aisialdi eskaintza guztia lokaletara eta parrandetara mugatzen dela iritzi dio. Hezkuntza formalaz ere aritu zaigu, eta eskolek ezartzen zaien curriculum betetzen nahikoa lan badutela uste du.

Batean zein bestean, beraz, balioetan heztea bigarren mailakotzat jotzen da azkenerako. Hutsune hori betetzeko asmoa dute Amarauna sareko taldeek. Pertsona kritikoak balioetan hezi nahi dituzte. Bide batez, gainera, udaleku, neguleku edota ludoteketan belaunaldien arteko lotura naturala bermatuz. Eta oro har garrantzirik ematen ez zaion arren, Aiartzaguenarentzat garrantzitsuen zer den argi dago: ondo pasatzeko, jostatzeko eta disfrutatze abagunea eskaintzen dute aisialdi taldeek. «Aisialdiak mundu berri bat ireki zidan eta nik mundu horren ateak zabaltzen nahi dizkiet hurrengo belaunaldiei ere», aitortuz agurtu gaitu.



«www.aterpeak.info» ataritik jasotako irudia. GAUR8

ATERPEAK.INFO, AISIALDI TALDEEN LAGUNGARRI IZAN NAHI DUEN ATARIA

Euskal Herrian zehar aurki daitezkeen aterpetxe, zelai eta kanpalekuak Aterpea.info atarian aurki daitezke. Horixe da Amarauna sareak aisialdi taldeei eta euskal jendarteari eskainitako lehen tresna. Erabiltzaile guztien artean ahalik eta tresna gaurkotu eta eraginkorra izatea nahi dute.

Izan ere, aisialdi taldeek udaleku edota irteerak antolatzeko erabiltzen dituzten gidek ez dute maiz Euskal Herria bere osotasunean aintzat hartzen, eta, gainera, asko zaharkituta ere badaude. Aiartzaguenaren aburuz, «odisea» bat izaten da udalekuak aurrera eramateko azpiegitura aurkitzea, eta, adibide gisa, iaz udalekuetarako etxe bat lotzeko 50 deitik gora egin zituela ekarri du gogora. «Ditugun telefonoak ez dira egokiak eta batera deituta bestera bideratzen gaituzte, hala etengabe. Pentsa, gainera, udaleku ibiltari bat antolatzen ari bazara; egun bakoitzerako lo egiteko leku bat aurkitzea ez da batere samurra», dio.

Aterpea.info atariak gaur-gaurkoz, 16 zelai, 26 kanpaleku eta 45 aterpetxe jasotzen ditu. Azken horien kasuan, gainera, zenbateko edukiera eta sukalde zerbitzua ba ote duten agertzen da web orrialdean. Atariak, gainera, datuak gaurkotu eta garatzeko aukera ematen dio erabiltzaile orori.

Aisialdi taldeez gain, edonork erabil dezake atari digitala, bai bertako datuak hartu eta erabiltzeko, bai aterpetxe berrien berri emateko ere. Ataria nahi duten guztien artean eraikitzea da, gainera, ekimenaren oinarri garrantzitsuenak Aiartzaguenaren ustez.

Aberri besta

Joseba Otondo

Aberri Eguneko liturgian urteroko adierazpen higituak nagusitu dira bertzerik deus errateko ez zuten hedabideetan. Iruñeko garagardo katxien artean edo Bilboko Plaza Barriko txakolin hurrupaldietan, egunak, gutienez, funtzio soziala izan du; bestarik eta bestondorik ez zen faltako. «Konstituzionalista ez abertzaleek», nola ez, urteroko hitzorduak ez diote hutsik egin, baina ospatzen ez dutenez, alferreko paragrafo hutsala errateko, beren oporraldietan tarte egin eta plaza mediatikorat, bertze behin, alderdiko funtzionario gogogabearen eta grisaren itxurarekin; irratitelebistek, bistakoa denez, halako adierazpen ezin interesgarriagoi lekua egin diete. Hala, gaurgero hedabideenganako mendekotasuna duen hiritar-kontsumitzaile gaixoak, eman diotena irentsi bertzerik ez du izan. Bakantza egunak izanki, ohi baino gutiago seguru.

Hala genbiltzala, Aberri Eguneko albo-ondorioak jasan dituen Ignacio Polo Iruñeko Hiri Segurtasunerako UPNko zinegotzia izan da. Aznarrek bere «intimitean» katalanez solas egiten zuen moduan, Polok, bere «intimitean», Aberri Egunaz gozatu eta «Goraeuskalerriaastakalkuta» oihukatzen du. Ez dakigu Independentistak sareko zapiarekin goiti eta beheiti ibili ote zen, peñaren batean txandaren bat egin zuen edo gazteekin Burutakzio topaketei Iruñea zaharreko karraketan akabera ezin emanez ibili zen. Kontua, denok ezagutzen duguna: odoleko alkohol miligramoek gainezka egin ziotela. Zorionez Don Simon Santamaria ez zebilen urrun eta, halakoetan izan ohi denez, beti da eskertzekoa gurutze bidean lagunduko zaituen laguna.

Ikusitakoak ikusita, hobe lukete alderdiaren aginduz oporraldia halabarrez adierazpen urdinak egiteko eteten duten horiek, Nafarroako Herri Batasunakoen (UPN erdaraz) moduan jokatzeko eta, hori bai, autoa hartu gabe, herri honez behingoagatik gozatzea. •